

Kostuen egitura

1. Kostu finkoak

Kostu mota hauek nahiz eta ekoizpen-maila aldatu berdin mantentzen dira kostuak.

1.1 Garapen eta mantentze teknikoa

Kostu hauek plataformaren funtzionamendu egokia eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren gastuak biltzen ditu. %30 da portzentaia.



- Mugikor eta web aplikazioaren garapena mantentzeko.
- Eguneraketak, zuzenketak eta funtzio berrien garapena bermatzeko.
- Segurtasun-sistemak eta babes informatikoa ziurtatzeko.

1.2 Zerbitzariak eta azpiegitura teknologikoa

Azpiegitura teknologikoa enpresaren oinarrietako bat da eta etengabe funtzionamendua bermatzeko kostu finkoak sortzen dira. Kostu finkoen %15 da.



- Hodeiko zerbitzuaen kontratazioa bermatzeko.
- Datu-baseen kudeaketa segurtasuna kudeatzeko.

1.3 Langile finkoak

Hauek dira langileen gastuak eta enpresaren kostu finko garrantzitsuenekoa. Gure enpresan 20 langile ditugu. Kostu finkoen %45 da.



- Garapen taldea (6 langile)
- Marketin taldea, hala nola, markaren presentzia digitala, komunikazioa eta bezeroak erakartzeko estrategiak (3 langile)



- Denden kudeaketako langileak, hau da, eguneroko eta zerbitzuaren koordinazioa (5 langile)
- Bezeroarentzako arreta, bezeroaren kontsultak, kexak eta laguntza teknikoa kudeatzea datza (4 langile)
- Zuzendaritza eta koordinazioa, hau da, enpresaren talde desberdien arteko koordinazioa (2 langile)

1.4 Marketing eta marka-posizionamendua.

Atal honek markaren iurdia eta merkatuan duen presentzia mantentzeko beharrezkoak diren kostu finkoak jasotzen du. %10 da portzentaia.



- Sare sozialetako kudeaketa.
- Markaren diseinua eta komunikazio estrategikoa, irudi koherente eta profesionala bermatzeko.
- Eguneroko komunikazio kostu finkoak, adibidez, harpidetzak edo oinarrizko publizitate kanalak.

2. Kostu aldakorrak

Kostu hauek erabiltzaile kopuruak, salmenta-kopuruak eta jarduera komertzialak gora edo behera egiten dutenean aldatzen dira.

2.1 Transakzioei lotutako kostuak

Atal honek plataforman egiten diren salerosketa digitalen ondorioz sortzen diren gastuak biltzen ditu. Kostu hauek zuzenean lotuta daude egindako transakzio kopuruarekin. Kostu aldakorraren %35 da.

- Ordainketa-pasabideek kobratzen dituzten komisioak, hala nola Bizum, banku-transferentziak edo beste ordainketa digitalak.
- Salerosketen kudeaketako gastuak.

Honetan zenbat eta transakzio gehiago egin, orduan eta handiagoa izango dira kostu hauek.

2.2 Marketing kanpaina aldakorrak

Marketing jarduera aldakorrak eta kanpaina ordainduak sortzen dituzten gastuak biltzen ditu atal honek, normalean hazkunde edo promozio faseetan aktibatzen direnak. %25 da atal honen portzentaia.

- Sare sozialen publizitate ordaindua.
- Google, Instagram edo antzeko plataformetako iragarki-kanpainak.
- Influencer edo tokiko eragileekin egindako lankidetzak puntualak, marka-ikusgarritasuna handitzeko.

2.3 Banaketa eta bidalketa kostuak

Produktuen entregarekin lotutako gastuak dira, salmenten bolumenaren arabera. %20 da portzentaia.

- Tokiko banaketa enprekin edo mensajería-zerbitzuekin lotutako gastuak.
- Dendek bidalketa egiten dituzten kasuetan, aplikazioak kudeaketa komisio puntualak jasotzea.

2.4 Plataforma teknikoaren erabilera handitzeagatiko kostuak

Plataformaren erabilera intentsiboagoak sortzen dituen gastu teknologikoak jasotzen ditu atal honek. Kostu aldakorren %10 da.

- Erabiltzaile kopurua handitzen, kostu handiagoak sortzen dira, zerbitzari edo baliabide teknologiko gehiago behar direlako.
- IPA (Interfaz de Programación de Aplicaciones) kontsumo handiagoa.

2.5 Eremu berrietara zabaltzeko kostuak

Enpresaren hedapen geografikoarekin lotutako gastuak dira. %10 da portzentaia.

- Lurralde berrietan erosle eta denda berriak lortzeko kanpainak.
- Tokiko merkataritza-elkarteekin eta udalekin hitzarmen berriak garatzeko gastuak.

3. Kostu estrategiko osagarriak

3.1 Berrikuntza eta ikerketa

Atal honek enpresaren lehiakortasuna eta etorkizuneko garapena bermatzeko egindako inbertsioak jasotzen ditu. Kostu estrategiko osagarrien %45 da portzentaia.

- Unibertsitate eta ikerketa-zentroekin egindako proiektuak, berrikuntza teknologikoa sustatzeko eta ezagutza berria garatzeko.
- Teknologia berrien probak, adibidez, datu-analisia edo automatizazio-sistemak, plataformaren funtzionalitatea hobetzeko.

3.2 Legezko gastuak eta administrazio-lanak

Enpresaren jarduera lege-esparruan modu egokian garatzeko beharrezkoak diren gastuak biltzen ditu atal honek. Atal honen portzentaia %30 da.

- Datu babesaren inguruko lege-aholkularitza, indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko.
- Kontratuen idazketa, pribatutasun-politikak eta kontabilitatearekin lotutako zerbitzu profesionalak.

3.3 Prestakuntza eta laguntza komertziala

plataformaren erabiltzaile diren tokiko denden integrazioa eta erabilera eraginkorra bermatzeko gastuak jasotzen ditu. %25 portzentaia du.

- Tokiko dendei aplikazioa erabiltzen irakasteko prestakuntza-saioak, presentzialak edo online.
- Stock kudeaketarako formakuntza.